

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, HIRI BARRUKO MERKANTZIA GARRAIOAREN FOROA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordean hilabete honetan egindako interpelazioaren ondorioz, Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroa dela kausa.

### JUSTIFIKAZIOA

Azaroan, Donostiako Udalak, Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren laguntzaz, Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroa jarri zuen martxan.

Antolatzaileen arabera, foroaren helburuak dira jarduera berritzaileak identifikatzea, aztertzea, proposatzea, garatzea eta abian jartzea, merkantzia modu eraginkor, sostengagarri eta garbiago baten kudeatzeko; eta Donostia "hiri logistika sostengagarrian erreferentzia" izatea.

Joan den urtarrilean gure taldeak, lehenik, aipatu forori buruko interpelazio bat egin zuen, ingurumenaren alorrean diharduten erakunde batzuk ere hari atxikitzeko, hasierako planteamenduan horiek jaso gabe geratu zirelako. Une hartan, zinegotzi ordezkariak adierazi zuenez, beste hiri batzuetako foroak adibide hartuta, ingurumen erakunderik ez zuten sartu. Hala ere, ingurumen arloko erakundeek foroan parte hartzearen alde agertu zen. Hil hartan eginiko kontrol mozioan, aho batez onartuta geratu zen Gobernuak, Ingurumeneko Kontseiluarekin batera, horrelako erakundeei parte hartzea erraztuko litzaiekeela.

Baina Ingurumeneko Kontseiluak martxoan egindako azken saioan, ez zitzaien kontseiluko kideei jakinarazi aipatutako foroan parte har zezaketarik. Ez dakigu, modu funtsatuan, beste bideren batetik proposatu ote dieten ingurumenaren aldeko elkarteei Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroan parte hartzea. Azkenik, Udalaren Webgunean martxoaren 31n foroaz argitaraturiko prentsa oharrean ondokoa irakur daiteke: *“El Foro DUM permanece abierto y están invitados a participar todos los agentes involucrados con la distribución de mercancías en la ciudad”*. Zoritzarrez, eta aho batez onarturiko mozioarekin kontraesanean, ez dituzte aipatzen ingurumen erakundeak.

Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroak ez du zertan ingurumen erakunderik txertatu, eta ezin behartu ditzake horrelako erakundeak parte hartzera hala nahi ez badute. Baina Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroan parte hartzea ala ez erabaki ahal izateko, gutxienez, bidea dutela jakin behar dute.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

#### KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari Ingurumen Kontseiluaren datorren bilkuran aditzera emateko ingurumen erakundeek parte har dezaketela Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroan, hala nahi izanez gero.
2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari adierazteko Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroaren hurrengo prentsa oharretan adierazteko ingurumen erakundeek foroan esku har dezaketela.

Sinatua: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.